



LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA

Laneko segurtasun eta osasunari buruzko ezagutza hedatzea eta prestakuntza ematea etengabe jorratu behar den oinarrizko pilarea da. Epe ertain/luzean egin behar da lan egungo haur eta gazteekin, laneko segurtasun eta osasunarekin lotutako balioak indartuz eta, arriskuaren pertzepzioa hezkuntzaren oinarritik landuz. Horrek, etorkizunean, gizarteak kontzientzia handiagoa izaten lagunduko du eta, azken finean, gizarte seguruagoa izatea ekarriko du.

Hautzarotik arriskua hautematearen kultura indartzeko helburuz, ikastetxeetan prebentzioarekin lotutako balioak helaraztearen garrantzia prestakuntzarekin zerikusia duen alderdi gakoetako bat da.

Zentzu honetan, Lea Artibai Ikastetxeak urteak daramatza prebentzio-kultura sustatzeko barrurako zein kanporako egitasmo ugari abian jartzen. Lea Artibai Ikastetxeko webgunean egokitu dugun LAI-LAP txoko honen bitartez, proiektu horien guztien berri ematen saiatuko gara.

Emaiozu begirada bat eta zerbait interesagria aurkitzen baduzu, hartu eta erabili!